# UHARTE ARAKIL - BERIAIN KB ARAUDIA

1. **UHARTE ARAKIL – BERIAN KB 2022. XII. EDIZIOA.**

   Uharte Arakil – Berain Kilometro Bertikala 2022 lasterketa 2022eko irailaren 18an ospatuko da, goizeko 10:00etan.

2. **BASTOIEN ERABILERA**

   Bastoien erabilera baimentzen da, erabiltzekotan ibilbide guztian eraman beharko direlarik.

3. **AURRERAPENAK**

   Aurrerapena ahalbidetzea derrigorrezkoa izanen da, korrikalari batek beste harrapatzen duenean.

4. **ZIGORRAK**

   - Nahitaezkoa da ibilbide osoa markatuta dagoen tokitik egitea.
   - Lasterketa egiten den ingurunea ez errespetatzea zigortu egingo da.
   - Ibilbidean zehar, antolakuntzako kideren bati, DYA edo sorospen-taldea artatzen ari ez den zauritu baten berri ez ematea zigortu egingo da.

5. **IRTEERA**

   Irteeran, korrikalariak binaka aterako dira, haien artean 30 segundu eta 2 minutuko tartea ezarriko delarik, antolatzaileen irizpidearen arabera.

6. **ANOAK**

   - AUNTZALDAPA (3,3 km): Likidoa
   - HELMUGA: Solidoa eta likidoa

## 7. PASOKO DENBOREN KONTROLA

- AUNTZALDAPA (3,3 km): 50 minutu
- HELMUGA: Ordu 1 eta 45 minutu

## 8. KATEGORIAK

Partehartzaileak ondorengo kategoriatan banatuko dira:

- **Emakumezkoak**
    - ABSOLUTUA: 18 urtetik aurrera
    - JUNIOR: 20 urtera arte
    - BETERANOAK: 40 urte baino gehiagokoak
- **Gizonezkoak**
    - ABSOLUTUA: 18 urtetik aurrera
    - JUNIOR: 20 urtera arte
    - BETERANOAK: 45 urte baino gehiagokoak

<u>Oharra</u>: Kontutan hartuko den adina, partehartzaileak lasterketaren urteko abenduaren 31n duena izango da.

## 9. SARIAK

- **Emakumezko eta gizonezkoa absolutua**
    - 1.go sailkatua: 300 € + garaikurra + txapela
    - 2. sailkatua: 150 € + garaikurra
    - 3. sailkatua: 100 € + garaikurra
- **Beteranoak (gizonezko eta emakumezkoak)**
    - 1.go sailkatua: Garaikurra
    - 2. sailkatua: Garaikurra
    - 3. sailkatua: Garaikurra
- **Junior (gizonezko eta emakumezkoak)**
    - 1.go sailkatua: Garaikurra
    - 2. sailkatua: Garaikurra
    - 3. sailkatua: Garaikurra

**Gizonezkoen errekorra:** 300€ (39:54 Aitor Osa. 2015)

**Emakumezkoen errekorra:** 300€ (47:54 Ainhoa Sanz. 2019)

## 10. IZEN EMATEAK

Partehartzaileen muga 200 izanen da (izen emate ordena kontuan izanik). Izen emateak internet bidez eginen dira, www.kronoak.com eta www.uhartearakil-beriain.com webguneetan. Uztailaren 1ean hasi (10:00) eta irailaren 12ra arte, edo dortsalak agortzen diren arte.

Azken kasu honetan itxaron zerrenda irekiko delarik. Izen ematearen zenbateko 17€koa izanen da FEDERATUENTZAT, eta 20€koa FEDERATUAK EZ DAUDENENTZAT.

Izen ematearen zenbatekoak, frogan parte hartzeko eskubidea ematen du eta bere barne hartzen ditu ardura zibil eta istripuen seguruak. Honek dortsalaren titularrari ematen dio estaldura.

Antolakuntzak dortsal batzuk gordeko ditu bere konpromezuetarako.

## 11. DORTSALAK EMATEA

Dortsalak eta kronometraje txipak jasotzeko ordutegia ondorengoa izanen da:

- Frogaren egunean bertan, goizeko 07:30etatik 09:00etara.

Aurten, jende pilaketak sahiesteko, aurreko egunean, larunbata 18, arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara jasotzeko aukera egonen da.

16 urtetik azpikoek, dortsala eta txipa jaso ahal izateko, antolakuntzak halarazitako Adin txikikoen baimena behar bezala bete eta sinatuta entregatu beharko dute.

Dorsalak jaso ahal izateko, NANa edo federazioko txartela entregatzea ezinbestekoa izanen da.

12. ARROPA EMATEA

Parte hartzaile bakoitzak arropa poltsa bat emateko aukera izanen du, antolakuntzak helmugan (Beriain) bere eskura jarriko duena. Honetarako aukera 08:45ak arte egonen da.

13. SARI BANAKETA

Sari banaketa udaletxeko plazan izanen da, 13:30etan.

Ez azaltzea, edo protokoloa eta entrega ordutegiak ez errespetatzea, hauek ez emateko arrazoi izanen dira.

14. REGLAMENTUA ERRESPETATZEA

Reglamentu hau ez errespetatzeak, denbora aldetiko zigorra edo frogatik kanpo geratzea ekarriko du.

15. ARDURA

Korrikalariak mendi lasterketa bat arriskuetatik libre ez dagoela konszinet izanik, antolakuntzak (ARALAR MENDI TALDEA), ez du bere gain hartuko istripu baten ondorio, lesio edo frogan zehar gerta daitekeen beste edozein inzidentzia.

Partehartzaileak izanen dira, haiek har dezaketen edo hirugarren bati egin diezaioketen edozein kalteren erantzule.

Bestalde, partehartzaileek ARALAR MENDI TALDEAri indemnizazio bat eskatu edo edozein erreklamazio egiteari uko egiten diote.

Antolakuntzak, partehartzaile guztientzako istripu seguru bat izanen du.

16. OSASUN LAGUNTZA

Antolakuntzak sorospen eta salbamendu-zerbitzuak izango ditu ibilbideko puntu estrategikoenetan.

17. **IRUDI-ESKUBIDEAK**

Parte-hartzaile orok antolatzaile eta bere babesleei baimena ematen die mugarik gabe lasterketaren testuinguruan grabatutako argazki edo bideo guztiak askatasunez erabili eta argitaratzeko.

18. **ITZULKETAK ETA DORTSAL ALDAKETAK**

Irailaren 9ra arte, inskribatutakoen bajak onartuko dira, eta inskripzioaren zenbateko osoa itzuliko da. Antolakuntzak itxaron-zerrenda erabiliko du, halakorik balego, bajak estaltzeko. Egun horretatik aurrera, antolakuntzak erabakiko du inskripzioaren zenbatekoa itzuli edo ez.

19. **SALBUESPENAK ARAUDIAN**

Erregelamendu honetan ezartzen ez denaren inguruan, Karrera Batzordeak egokitzat jotzen dituen erabakiak hartuko ditu.